

2024KO IRAILAREN 30EKO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko irailaren 30ean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Idazkariak, saioa hasi aurretik, aurreko bilkuran Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) luzatu zuen galderari dagokionean, adierazpen instituzionalak nork sinatu behar dituenaren inguruan, azalpenak eman ditu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko irailaren 16an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 67 zenbakidun zerrenda EHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA ZAZPI euro ETA HOGEITA HAMALAU zentimokoa (133.367,34 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- ZUBIZKITZA AUZOKO 3. FASEA BERRURBANIZATZEKO OBREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Udal honen eskariz, Soroa Arquitectos S.L.P.ko Miguel Angel Irazabalbeitia eta Pedro Izaskun arkitektuek, Zubizkitza auzoko 3. fasea berrurbanizatzeko proiektua idatzi dute.

Proiektuaren xedea Zubizkitza auzoaren zati bat berrurbanizatzea da, zehazki, 3. faseak espaloiak eta auzoko 1. zenbakitik 30. zenbakira bitarteko etxebizitzei eragiten dieten azpiegiturak berrurbanizatzeko obrak definitzen ditu.

Proiektu honen aurrekontua 298.923,89 €-koa da. Zenbateko honi dagokion BEZ erantsi beharko zaio.

Beste alde batetik udal zerbitzu administratiboek kontratazio espedientea prestatu dute, lanak lehiaketa bidez esleitzeko.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio Hirigintza batzordean ondo legokeela azalpen tekniko batzuk aipatzea.

Alkateak erantzun dio aurreko 2 faseetan egindako berbera zenez, berak ez ziola Hirigintzako teknikariari esan eta hark ere ez zuela beharrezkotzat jo. Alkateak azalpen batzuk eman ditu proiektuaren inguruan.

Proiektuan akats bat atzeman da 3. fasearen metro karratu kopuruari dagokionean, hau zuzentzeko eskatuko zaie arkitektoei.

Hau guztia horrela, gaia aztertu ondoren, arkitektoek proiektuaren akatsa zuzentzera baldintzatuta, eta Hirigintza batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), honako akordioak hartu ditu:

- 1.- Zubizkitza auzoko 3. fasea berrurbanizatzeko proiektua onartzea.
- 2.- Lanak lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea. Izapidetze-prozedura ireki sinplifikatua izango da.
- 3.- Kontratu honek dakarren 298.923,89 € gehi BEZari dagozkion 62.774,02 €-ko gastua baimentzea, indarrean dagoen 2024 urteko aurrekontuko 1 601.05.152.10 aurrekontu-aplikazioaren kontura.
- 4.- Lizitazio publikoa kontratatzailearen profilean iragartzea.

IV.- TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNATUARI 2024KO UDAL EKARPENA.-

Lazkaoko Udalarari 2024an dagokion urteko ekarpena 4.354 €-koa da.

Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez onartu du ekarpen hori.

V.- KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Lazkao, Kirol Sariak.-

“Lazkao, Kirol Sariak” egitasmoaren 2024 urteko ondorengo sari banaketa proposamena egin du Kirol eta Gazteria batzordeak:

SARITUA

PROPOSAMENAREN ARRAZOITZEA

Deialdiko oinarria

LORPENEN ARABERAKO BANAKAKO SARIAK:

Maren Gorrotxategi Casado	Igeriketan, Junior mailako Gipuzkoako Txapelketa 2007 urtekoetan	Gipuzkoako txapelketa irabaztea
Iker Muruamendiaraz Noain	Igeriketan, Junior mailako Gipuzkoako Txapelketa 2. postua 50 tximeleta (2006 urteko 1. postua)	Gipuzkoako txapelketa irabaztea
Iker Altuna Plazaola	Igeriketan, Junior mailako Gipuzkoako Txapelketa 1.postua 200 bular	Gipuzkoako txapelketa irabaztea
Eider Insausti Gago	Igeriketan, Infantil mailako EH Txapelketa 3 postua 4 x 50 libre	Euskadi mailan lehen hiru sailkatuetan izatea
June Zubiri Agirre	Igeriketan, Infantil mailako EH Txapelketa 1. postua 50 tximeleta	Euskadi mailan lehen hiru sailkatuetan izatea
Nerea Gorjon Garcia	Igeriketan, Junior mailako EH Txapelketa 2. postua 100 bizkar	Euskadi mailan lehen hiru sailkatuetan izatea
Lander Sarriegi Estensoro	Igeriketan, Junior mailako EH Txapelketa 2. postua 200 tximeleta	Euskadi mailan lehen hiru sailkatuetan izatea
Haizea Aldasoro Ibarguren	Gimnasia erritmikan, Espainiako txapelketa taldekako infantil mailan.	Espainia mailan lehen zortzi sailkatuetan izatea
Iraia Mendia Arrieta	Euskadiko Senior mailako kros txapelketa 2023an.	Euskadi mailan lehen hiru sailkatuetan izatea
Ane Barandiaran Soraluze	Euskadiko kros txapelketa Sub-18 3.	Euskadi mailan lehen hiru sailkatuetan izatea
Alazne Estensoro Macicior	Europako 17 urtez azpiko futbol txapelketa azpitxapelketa Espainiako selekzioarekin	
Auritz Mendia Arrieta	Txirrindularitzan, Kadete mailako Euskadiko txapelketa	Euskadi mailan lehen hiru sailkatuetan izatea

TALDEKAKO LORPENEN ARABERAKO SARIAK

Lazkao K.E.-ko erregional taldea	2023-2024 futboleko denboraldian Gipuzkoako erregional mailako txapelketa eta Mailaz igo da	Gipuzkoako txapelketa irabaztea
----------------------------------	---	---------------------------------

BIZITZA OSOKO KIROL IBILBIDEA - PARTE-HARTZE NABARMENAK IZATEA

Aritz Urria Garmendia	Txirrindularitzan, afizionatu mailan goreneko mailan ibilia, sprinter moduan aipagarria, profesional mailan bere aukerak azaltzeko aukera izan gabe pasa den denboraldian erretiratu behar izan zuena. Bai pista eta errepidean hainbat lasterketetan ongi ibilia eta Europako txapelketetan parte hartua.	Parte-hartze nabarmen edo lorturiko emaitza nabarmenak
-----------------------	--	--

LAZKAOKO KIROLAREN ALDE MODU AKTIBOAN LAGUNTZEN DUEN ERAKUNDEA SARITZEA

AMALUR MENDI ELKARTEA	50 urtez herritarrei; haur, gazte eta helduei mendiaz gozatzeko aukera emateko hainbat eta hainbat proposamen egin dituena.
-----------------------	---

LAZKAOKO KIROLAREN ALDE MODU AKTIBOAN LAGUNGU DUEN PERTSONA SARITZEA

Kruxito Barandiaran Irastorza	Lazkaon, txirrindularitzaren alde egindako lan itzela eskertzeko eta omentzeko
Jose Antonio Andanondo. Ttantton	Lazkaon, kirolaren hedapena eta praktika bere osotasunean sustapenean egindako lan itzela eskertzeko eta omentzeko

Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, sari banaketa proposamen hau onartzea erabaki du.

VI.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu du:

Gerriko Kultur Elkarteari.-

Irailaren 12, 13 eta 14an Lazkaoko Euskadi plazan antolatutako garagardo azokarako alokatutako txosnaren alokairua ordaintzeko 1.300,75 €-ko dirulaguntza ematea.

VII.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

Gidabaimena euskara hutsean ateratzeagatiko dirulaguntza.-

2024. urtean autoa edo motorra gidatzeko baimena euskara hutsean ateratzeagatik dirulaguntzak ematea. Ikasle bakarra izan da, bere espedientean dauden datuen arabera, eta 100 € emango zaizkio.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2024ko aurrekontuaren 1 481.02.335.00 partidatik.

VIII.- LANDA EREMU ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa Eremuko batzordetik baserritar ekoizleei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Baserritar ekoizleei bonoengatik.-

Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei hirugarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

EKOIZLEA	GUZTIRA	DIRU LAGUNTZA
AITOR IZTUETA BARANDIARAN	400 €	171,43 €
IKER SUKIA MESAS	500 €	214,29 €
GUZTIRA	900 €	385,71 €

Dirulaguntzari dagokion zatiaren ordainketa, aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita hamabost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.